

## GEZURRA

Maddi Aiestaran Iparagirre

*Beasain*

Alkandoraren mahuka-bikiei begira nago: urrezkoak dira; duela bi urte jaso nituen, Espainiako Erregearen eskutik, jaun txit goren izendatu baininduen Medikuntzaren Institutu Nazionalak. Nire behatz dardartiak mahuka-bikien urrezko gorputzean dotore bezain oparo grabatutako inzialen ibilbidea egiten ari dira, astiro-astiro, behin eta berriz: J.M.E. Jon Mendigorria Etxeberria jaun txit gorena. Sinetsi ere egin izan dut, behin baino gehiagotan.

Eskumuturra mugitzearekin batera, alkandoraren azpian daramadan Rolex garestiaren distirak harrapatu du nire begirada: bostak laurden gutxi. Garaiz nabil. Zuzendariak Errekalde Zumarkaleko 39. zenbakian duen bulegoan egon behar dut, bostetan. Halaxe eskatu dit, gaur goizean, haren idazkariak, ahots ezin goxoago batez. Eskuin aldera jiratu dut burua, metroko atearen gaineko kartelerantz: hurrengo geltokian jaitsi behar dut.

Begirada galdua daukat berriro. Bat-batean, are bortitzagoa bilakatu da barrenean kolpeka dabilki-

dan min bizia, bihotzean iltzatuta daukadan min bizia, bart gaueko loa erabat galarazi didan min bizia. Izan ere, une batez, bera ikusi dut, ebakuntzaren bezperan kontsultara etorri zenean zuen bizipoz berberarekin; berehala konturatu naiz, ordea, ez dela bera, ez dela nik metroko bagoi honetantxe zutik ikusi nahiko nukeen mutila. Beste bat da. 25 bat urte izango ditu. Nire pazientek ere bai. Gorputz lerdena dauka. Nire pazientek ere bai. Sasoi bete-betea dago. Nire pazientea ere bai. Futboleko poltsa bat darama sorbalda eder bezain indartsu batetik zintzilik; entrenamendura joango da, larunbateko partida prestatzera, gogotsu. Nire pazientea ere bai. Bera ere gazte, lerdan, sasoi bete-betea zegoen, eta gogotsu, oso gogotsu, ezker aldakako ebakuntza egin, eta, ahal bezain pronto, berriro ere futboleko jokatzeko has-teko. Nik, ordea, pikutara bidali dut den-dena, pikutara bidali dut perfektutasun hori guztia.

Metroaren geldialdi zakarrak nire gorputza astindu du. Jaitsi egin behar dut. Berriro ere, Rolex garestiaren aurpegitxoari begiratu diot: bostak hamar gutxi. “Errekalde Zumarkalea” irakurtzen dut, zirkulu urdin batean, metro-geltokiaren pareko kale-kantoian. Berrehun metro eskas egongo dira zuzendariaren bulegoa dagoen eraikinera. Arin joan nahi dut, baina ezin dut: oso pisutsuak sumatzen ditut nire zapata distiratsuak, iragan urtarrilean –Milango Unibertsitatean eman nuen konferentzia haren aitzakian egindako bidaian– Duomo plazako luxuzko denda hartan erosi nituen zapata distira-

tsuak. Izugarri kostatzen zait oina lurretik altxa eta pausoa ematea. Pauso zalantzatia baita nirea. Bitxilore bati hostoak kentzen ariko banintz bezala sentitzen naiz: zalantziati. Ondotxo dakit zertara noan, eta ondotxo dakit, halaber, egitera noan hori oso itsusia dela. Horrexegatik nago zalantziati, horrexegatik da horren geldoa nire pausoa.

39. zenbakia. Hementxe da. Beirazko eraikin moderno-moderno bat da, hoztasuna helarazten didan eraikin bat. 2. solairuan omen dago zuzendariaren bulegoa. Igogailua hartuko dut, gaur ez daukat-eta bizimodu osasuntsuaren alde egiteko indarririk. Ispilura begira nago. Jada ez naiz duela hogeit urteko mutil erakargarria. Ez horixe. Zartatzen hasia da nire aurpegia, zuritzen daukadan ile apurra. Gaur, gainera, begi-zulo handiak dauzkat, eta oso kolore txarra. Igogailuaren jauziak ezustean harrapatu nau. Nire erloju garestiaren arabera, bi minutu besterik ez dira falta bostak izateko. Banoa, moketa dotore batean barrena, nire salbatzailearenganantz. “Zuzendaria” irakurtzen dut ate batean zintzilik dagoen urrezko idazkun batean. Iritsi naiz. Aldameneko idazmahaiian, hogeita hamar bat urteko neska lirain bat dago; ordenagailuaren teklatua astintzen ari da. Ezagutuko banindu bezala hitz egiten dit, gaur goizeko ahots goxo berberarekin. Esertzeko esan dit, segituan hartuko nauela zuzendariak.

Bostak, puntu-puntuan. Hemen da. Nire izena esan du, eta barrura sartzeko keinua egin dit. Eskua luzatu dit, eta, ondoren, atea itxi du, astiro-

astiro, harik eta ziurtatu duen arte ondo itxita dagoela, inork ez entzuteko moduan. Handia eta dotorea da bulegoa. Diplomaz josita dago: “jaun txit gorena” irakur daiteke bazter guztietan. Perfume garesti baten usaina zabaldua dago, bulego osoan zehar. Zuzendariarena izango da. Aurrez aurre daukat. Inoiz baino dotoreago dagoela iruditzen zait. Ni baino hamar bat urte zaharragoa den arren, ez diot ile zuri bakar bat ere ikusten. Gomina emango du, ez zaio-eta ile bat bera ere mugitzen. Berari neurrira egindakoa dirudien traje bat darama soinean, ezin txukunagoa. Esertzeko esan dit. Urduri nago. Urduri eta zalantzati. Hizketan hasi zait. Oso mediku ona omen naiz, eta oso harro omen dago nitaz. Ospitalearentzat, luxua omen da ni bezalako mediku batek bere zerbitzura lan egitea. Hitza hitzaren atzetik. Isildu gabe ari da hizketan, baina ez dit begietara begiraten. Eskuan duen bolalumari begiraten dio lehenik, ordenagailuari ondoren, eta gorbata bere lekuan jartzen saiatzen da gero, egitera doan astakeriarekin deseroso sentitu ez dadin. Azkar hitz egiten du. Buruz ikasita dauka diskurtsoa; ez du lehenengo aldia izango. Ohituta dagoela dirudi. Badaki hizketan. Guztiok egiten omen dugu inoiz hanka-sartzeren bat. Atzokoa ere hanka sartze bat izan omen zen, baina ba omen dauka konponbidea. Une batez, argia ikusi dut, itxaropentsu begiratu diot begietara, umetxo batek bere guraso ahalguztidunei begiraten dien bezala. Berehala jabetu naiz, ordea, bi kode desberdin direla nirea

eta berea. Konponbidea hitzaren esanahia ez dela berbera niretzat eta beretzat. Nire izen ona, ospitalearen izen ona, osasun-sistemaren izen ona ez galtzeko konponbidearen bila dabil bera. Nik, ordea, askoz garrantzi handiagoa duen beste zer-bait konpondu nahiko nuke.

Orri bat atera du idazmahaiaren tiradera bate-tik. Sinatzeko eta guztia ahazteko esan dit. Eskuartean daukat konponbidea. Dardarka sumatzen ditut, berriro ere, orria sinatzeko erabili behar ditudan behatzak. Nik ere, ebakuntzaren bezperan, sinatzeko esan nion nire pazienteari; sinatzeko eta ahazteko arriskuez. Medikuok geure burua babesteko sinarazten dugun orria zen. Ez zuela irakurriko esan zidan, beldurra sartuko zitzaiole-eta. Ondo egiten zuela esan nion nik, begietara begira. Eta berehala sinatu zuen. Ez zuen zalantza izpirik ere izan. Konfiantza osoa baitzeukan nigan, hurrengo egunean ebakuntza sinple bezain korapilatsu hura egingo zion medikuarengan. Ni, ordea, zalantzati nago, ez baitut konfiantza berbera sentitzen zuzendariarekiko. Zer egin behar dut? Orriari begira nago; goitik behera irakurtzen ari naiz. Gezur handi bat da guztia. Sona handiko mediku izaten jarraitzen utziko didan gezur handi bat. Ospitaleari estatuko ospitale onenen zerrendan jarraitzen utziko dion gezur handi bat. Zuzendariaren behatzak sumatzen ditut mahai gainean, dantzan. Nire urduritasuna areagotu besterik ez dute egiten. Barru-barruraino sartzen zait bere perfumea. Jasanezina egiten zait.

Atzoko goiz malapartatuan ere jasanezina egiten zitzaidan alboan neukan erizainaren perfume-usaina. Enbarazu egiten zidan. Haren mugimendu txiki bakoitzeko, lurrin gogaikarri haren usain sarkorra etortzen zitzaidan, eta areagotu egiten zuen nire buruko min bortitza. Ez nintzen baldintza onetan ari lanean. Hiruzpalau egun neramatzan ondoezik, buruko min handiarekin eta gorputzaldi txarrarekin. Baina ez nuen nire agenda aldatu nahi izan. Nituen ebakuntzekin aurrera jarraitu nuen, inertziatz. Eta inertziaren inertziatz, konturatzeko, atzera bueltarik ez duen hanka-sartze bat egin nuen. Hanka-sartze ikaragarria. Fakultatean falta oso larritzat jotzen genuen hanka-sartzea. Zuzendariak gezur nazkagarri baten bidez estali nahi duen hanka-sartzea. Aurrerantzean, eskuarte-an dudan orria sinatuta ere, nire oroimenaren zirrikitu guzti-guztiak beteko dituen hanka-sartzea.

Gehiegi fidatu nintzen, eta mediku batek ez du sekula gehiegi fidatu behar. Pausorik txikiena ere egiaztapen zorrotz baten ondoren eman behar du, pazientearen historia klinikoa enegarren aldiz irakurri ondoren. Nik ez nuen, ordea, zehaztasun txiki bezain garrantzitsu hura irakurri. Segundo erdi batez, oharkabetu egin nintzen; ohikoetan ohikoena zirudien paziente hari buruzko xehetasun garrantzitsu bat ahantzi nuen, eta, anestesia gehituzerakoan, dosi handiegia eman nion. Dosia gorputzean sartzearekin batera ohartu nintzen zerbait gaizki egin nuela. Berandu zen, ordea; ezin nuen atzera egin.

Gaur ez, ordea; gaur, oraindik, ez da berandu. Garaiz nabil: aurrera egiteko edo atzera egiteko. Sinatzen badut, mediku entzutetsua izaten jarraituko dut; nazioartean konferentziak ematen jarraituko dut; luxuzko denden bezero estimatua izaten jarraituko dut. Inork ez du izango nire hanka-sartzearen berri, diploma hantustetsuz beteta dauden pareta hauek irentsiko dute gezurra. Nolanahi ere, buruan kolpeka sentituko dut, egunero-egunero, mailu bat, “erruduna zara!” diosdana, eta jasanezina izango da. Buruko min etengabe batean bizitzera kondenatuta egongo naiz. Sinatzen ez badut, akabo nire ibilbide profesionala; akabo nazioarteko konferentziak; akabo orain arteko ospe eta izen ona. Inork ez du gehiago gogoratuko zeinen mediku ona nintzen; inork ez du gogoratuko behin batean jaun txit goren izendatu ninduela Medikuntzaren Institutu Nazionalak. Mutil gazte bilbotar bat paraplegiko utzi zuen medikua izango naiz, betiko, mundu guztiarentzat.

Une batez, burua altxatu dut, eta zuzendariari begiratu diot. Iruditzen zait urduritzen hasita dagoela. Arraro begiratzen dit, zerbait txarra egitera joango banintz bezala, berak eta bere modukoek egiten dutena oso gauza ona dela sinetsita. Errealitate deformatua da, ordea, berea. Ustelkeria nagusi den mundu gaizto honetan, ez da-eta erraza txarraren eta onaren kontzeptuak ondo bereiztea. Botere zikinaren zurrunbiloan sartzen garenean, munduko zentzugabekeriarik handiena ere ona dela sinestera hel baikaitezke.

Begietara begiratu diot: “Ez dut sinatuko” esan diot. “Ez dut gezur krudel horren parte izan nahi”. Orriari bultza egin diot bere eskuetarantz, eta mahaitik altxa naiz. Isil-isilik geratu da. Belarrondoko bat hartu izan balu bezala. Ez zuen halakorik espero, ez dago-eta ohituta inork kontra egitera. Ez dakit lotsarik sentituko zuen ala ez; ziurrenik ez, oso azal gogorra izaten baitu gisa honetako jendeak.

Banoa, berriro ere, igogailurantz, moketa dotorean barrena. Arintxeago sentitzen ditut oinak, arintxeagoa da nire pausoa. Ez dut igogailua hartuko; badut oinez joateko indarra. Amaitu da. Triste nago, oso triste, baina garbi, oso garbi sentitzen naiz. Eraikinaren ate modernoak irekitzearekin batera, haize-bolada goxo batek astindu du nire aurpegia. Begiak itxi, eta hasperen egin dut, udazkeneko haize goxoaren garbitasuna nire barnean gorde nahian bezala, eta oinez jarraitu dut, norabide finkorik gabe, luma baten antzera, nire ardura bakarra naturaren purutasuna dastatzea izango balitz bezala.

Doña Kasilda parkean nago; urteak dira etorri ez naizela. Txikitan, igande arratsaldeetan etortzen ginen hona. Gehienetan, aitarekin eta amarekin; aitak ospitalean guardia bazeukan, aldiz, amarekin bakarrik. Berdin-berdin usaintzen jarraitzen du. Amaren askari goxoa jan bitartean itzala ematen zigun urki ederraren azpian eseri naiz. Belar gainean ipini dut nire traje garestiaren jaka, amak karra-tu zuri-berdedun manta hura jartzen zuenean



bezala. Mahuka-bikiak askatu eta gora egin diot alkandorari, erlojua kendu dut, gorbata kendu dut, zapatak kendu ditut. Eta negarrez nago, ume bat bezala negar egiten ari naiz. Oraintsu arte, ezin nuen negarrik egin; sinatzera nindoan gezur ustelak eragotzi egiten zidan negar egitea. Baina, orain, lasai egin dezaket negar, zorigaitza zorigaitz, egia gailendu baita.

Badakit orduero, minutuero, segundoero zigortuko dudala neure burua egin dudanagatik. Badakit bizkarrean eramango dudana zama ikaragarria izango dela. Baina hain zuzen ere, zama ikaragarri hori izango da borrokatzeko indarra emango didana, benetako konponbide bat aurkitzeko indarra emango didana. Gaurtik aurrera, xede bat eta bakarra izango dut: nire pazientea sendatzea, nire pazientea berriro ere sasoi betean ikustea. Horretan erabiliko dut daukadan jakinduria eta indar guztia, daukadan diru guztia, eta, egun batean, nire pazientea zutik ikusiko dut metroko bagoi batean, gogotsu, futboleko poltsa sorbaldan hartuta. Eta harro egongo naiz neure buruaz: ororen gainerik, “jaun txit goren” izendapenaren gainerik, egian oinarritutako borroka baten benetako garai-lea izango naizelako.